


aurkezten du:



GIDA DIDAKTIKOA

GIZON

ZORIONTSUAREN

ALKANDORA

UNITATE PEDAGOGIKOA

AURKIBIDEA

0. LIBURUAK, ARBELA ETA... ANTZERKIA

1. ESKOLAN IKERTUZ. Antzokira bisitaren aurretiko jarduerak.

- Sarrera. Alkandora bat eskolan.
- dinamika. Zoriontasunaren irudia marraztuz.
- dinamika. 100% zoriontasun hutsa
- dinamika. Zoriontasuna eskolan: ZAB; Zoriontasunerako Agente Bereziak

2. ESKOLATIK ANTZOKIRA Lan eszeniko bat ikustearen esperientzia.

3. PUNTU ETA JARRAI Antzokira bisitaren ondorengo jarduerak


- 3.1 dinamika. Antzokia Zoriontasunerako Agente Berezi gisa.
- 3.2. dinamika. ZAB izateko jarraibideak.
- 3.3 Jarraituko du...

0. LIBURUAK, ARBELA ETA... ANTZERKIA.

Testu hau irakurtzen hasi bazara, eskolan zure lana garatzerako garaian tresna gehiago edukitzea gustatuko litzaizukelako da. *Liburuak, arbelak eta...antzerkia, zergatik ez?* Antzerkia tresna oso baliagarria izan daiteke jakin-minak esnatzeko, beste begirada batzuetaz ohartzeko edota gorputza eskolan egiten den lanaren ardatzean jartzeko.

Egun batzuk barru “Gizon zoriontsuaren alkandora” obra eszenikoa ikustera joango zarete. Antzerki-sorkuntza bat da, zoriontasunaren inguruko hausnarketa bat eskaintzen duena. Bidaia oso berezi baten bitartez, antzezleek publikoa hainbat galdera egitera gonbidatzen dute, hala nola, zer da zoriontasuna? Zer behar da zoriontsu izateko? Aurkitzea erraza dela uste al duzue? Hau da Gizon zoriontsuaren alkandorak eskolan planteatzera eta garatzera laguntzen duena.

Hezkuntza-unitate hau baliagarria egingo zaizu lan hau hasteko. Irakur ezazu eta zeurea egin, jarrai ezazu hasieratik bukaerara, nahastu edota atalik gustokoenarekin geratu zaitez. Dakizun bezala, hezkuntzan ez dira formula magikoak existitzen, ikasle guztiak ez dira berdinak eta beti ez gara modu berean sentitzen. Horregatik garrantzitsua da zu, irakasle bezala, proposamen hau zure eskolara lurreratzea, ikasleen ahotsak entzunez eta dinamika bakoitza zure errealitate zehatzetara egokituz. Erronkari heltzeko gogoz?



1. ESKOLAN IKERTUZ. Antzokira bisitaren aurretiko jarduerak.

Sarrera. Alkandora bat eskolan (5 min. inguru)

Gaurko eskola gelako esekitoki batean zintzilikatua zegoen alkandora bat janzten hasiko zara. Alkandora jazten duzun bezain laster hobeto sentitzen zara. Ikasleekin komentatu ezazu. Honelako zerbait izan daiteke:

Eskolara pixka bat triste eta nekaturia etorri naiz, baina badirudi alkandora jarri dudanean pixka bat hobeto sentitu naizela... momentu atseginetan pentsatzen hasi naiz, zoriontsu sentitu naizen leku edo egoeratan... Gogoratu naiz behin nola...(adibideak jarri)

Alkandora erakusten duzu eta denen artean zenbait etiketa dauzkala ohartzen zarete. Horietako batean non egina dagoen eta nork egin duen irakurri dezakezue (gizon zoriontsuaren alkandora antzezlanaren laburpena eta konpainiaren, antzokiaren... [webgunerako linka](#) txertatzen dugu). Webgunera sartu zaitezke eta alkandora nondik datorren jakin.

Beste etiketa osatu gabe dago. Zoriontasunaren alkandora du izenburutzat eta bere konposizioaren bete gabeko hainbat portzentai topatuz. Momentuz ez dugu konposizio hori ezagutzen. Aurrerago aztertuko dugu.



1.1. Dinamika Zoriontasunaren irudia marraztuz.

Goazen zoriontasunaren alkandorak nola funtzionatzen duen ikustera. Horretarako lehen beroketa bat egingo dugu.

Beroketa ariketaren deskribapena. (10-15 min. inguru.)


Bikoteka jarriko gara. Ariketa hau, gihar edo gorputz-zati bakoitzari masajea ematean datza, burutik hasi eta oinekin bukatuz. Masajea jasotzen duena erlaxatua egoten saiatuko da begiak itxita mantenduz. Beste pertsonak behatzekin aurpegian masajea emango dio pixkanaka, tentsioak somatzen dituen gunetan geldituz. Behin aurpegiarekin bukatuta, burura pasako gara, ondoren lepoa, sorbaldak, besoak, eskuak, hatzak, hankak, belaunak, oinak...

Ariketa hau isiltasunean eta poliki egin behar da. Helburua beste pertsonarekin fidatzeada da, denen artean lasaitasuna eta konfiantza giroa sortzen delarik.

Jardueraren deskribapena: (15-20 min. inguru.)

Lurrean biribilean jarriko gara, eta banan-banan nahi duenak, altxatu eta alkandora probatu dezake. Jazten duenak momentu atsegin bat gogora ekarriko du, eta sentsazio hori aurpegia eta/edo gorputzarekin adieraziko du. Modu lotsatian irripar egin dezakegu, algara egin, besoak altxatu edo saltoka hasi... Adierazpen hori lortzen dugun momentuan izoztuta geratuko gara eta estatuetan bilakatuko gara.

Gainontzeko taldekideak keinuak eta jarrerak nola dauden adi egongo dira... sentsazioa igarri ahal izateko. Laguna estatua bat bezala geratzen denean, modu erraz batean bere jarrera koadernoetan marrazten saiatuko gara, aurrean dugun forma horiei ahalik eta fidelen izanik.



Modu honetan, alkandora probatu duten pertsona kopurua marrazki kopuruaren berbera izango da.

Jarraian, marrazki guztiak lurrean ipiniko dira, antzekotasunen arabera elkartzuz (irriparren formak, ahoak irekiak, esku altxatuak...) eta guztien artetik bat aukeratuko duzue; zuen iritziz momentu zoriontsu bat hobekien islatzen duena.

Dinamika hau bukatzean denen artean, gorputz-ariketa baten eta marrazki ezberdinen bitartez, denen artean ZORIONTASUNAREN IRUDIA sortu duzue¹.

1.2. Dinamika 100% zoriontasun hutsa (15min. inguru.)

Jada alkandora nola funtzionatzen duen frogatu duzue, eta orain bere konposizioa zein den asmatzen saiatuko gara.

Zerez egina dago zoriontasunaren alkandora? Zeintzuk dira osatzen duten elementuak?

Jardueraren deskribapena: Aurreko dinamikan, alkandora jartzean zoriontsuak sentitu garen momentuetan pentsatu behar genuen. Ariketa polita izan daitekeela uste baduzu, ikasle bakoitzak pentsatutako momentu horren inguruko azalpena egin dezake, testu txiki baten bitartez (alkandora jarri ez dutenen kasuan, orain pentsatu eta idatzi dezakete egoera zoriontsu baten inguruan). Behin ikasle bakoitzak bere momentua idatzi ondoren, zein elementuri esker diren momentu horiek zoriontsuak pentsatuko dugu.

Adibidez: Momentu zoriontsua zen nire lagunekin nengoelako, familiarekin nengoelako, gustukoen dudan musika entzuten ari nintzelako, jolastu nezakeelako...

Ozenki, ikasle bakoitzak bere elementuak irakurriko ditu, aipatutakoarekin arbelean zerrenda bat egiten ari zareten bitartean. Gehien errepikatzen diren elementuen arabera zoriontasunaren alkandoraren konposizioa zein den erabaki dezakezue. Adibidez, ea gehien errepikatzen diren elementuak lagunak diren, eta pixka bat gutxiago jolasak eta gominolak. Jarraian azaltzen den moduan osatu dezakezue alkandoraren etiketa:

Zoriontasunaren alkandora. Konposizioa.

- 80% lagunak
- 15% jolasak
- 10% gominolak

¹ Irudi hau aurrerago lagunduko dugun materiala izango da. Eskaneatu ezazu eta gorde ezazu.



1.3. Dinamika Zoriontasuna eskolan. / ZAB, ZORIONTASUNERAKO AGENTE BEREZIAK (30min. inguru.)

Eskolan denbora asko pasatzen duzue, agian alkandora ipini duzue gogoratutako momentuak bertan gertatutakoak dira. Bestela, seguru eskolan gertatu den momentu zorionsuren batean pentsa dezakezuela.

Behin gogora ekarrita, momentu horiek ikusgai egiteko eta maizago gertatu ahal izateko ekintza bat egingo dugu. Modo honetan, gainontzeko ikasleek ere momentu horiek bizitu ahal izango dituzte.

Jardueraren deskribapena: (20min. inguru.)

Gure zoriontasunaren irudiari helduko diogu berriz ere, eta pegatinetan eta posterretan bihurtuko dugu².

Momentu zorionsuren bat bizitzen lagundu zaituzten eskolako pertsonak eta lekuak seinalatuko ditugu (gehienez 3 jarri ditzakegu: 3 pertsona eta 3 leku, adibidez). Horretarako, denen artean, zein pertsona, zein leku eta zergatik ematen diegun kategoria hori adostu beharko dugu. Eztabaida txiki bat egingo dugu, non pertsona eta leku desberdinak proposatuko diren, bertutea, aukerak eta orokorrean gustatzen zaizkigun alderdiak azpimarratuz.

Pertsona eta leku horiek zeintzuk diren argi duzue, zoriontasunaren irudia duten pegatina bat ipini edota espazioan poster bat ipiniz seinalatu ditzakezue. Zeregin horiek banatu ditzakezue eta taldeka antolatu pertsona

² Irakasleak irudia pegatinetan eta A4 folioetan inprimatua izango du (laranja, hori edo arrosa bizi-bizia, unitatearen garapenerako atxikituko duguna).

edota espazio horietara joateko, ikasleek aproposa ikusten dutenean (jolas-garaian, eskolatik ateratzean... izan daiteke)

Ekintza honen helburua, alde batetik, zoriontsu egiten gaituzten pertsonei esker ona ematea da, eta bestetik, ikasleei zoriontsu sentitu daitezkeen espazioak ezagutzera ematea.

Eskolako pertsona eta espazio hauei izen bat jar diezaiekegu, adibidez ZAB Zoriontasunaren Agente Bereziak ³, Zoriontasunaren motorrak, Zorimotorrak... denen artean nola izendatu pentsa dezakezue.



Eskolako ZABak nortzuk izan daitezkeen inguruko eztabaidan, justifikatzen edo akreditatzen ⁴ duzuen dokumentu/titulu hau osatu dezakezue eta beraiei eman, edota formatu digitalean bete dezakezue eta ikastetxearen webgunera igo. Modu honetan, norbait ZAB izendatua denean edota norbaitek bereizgarri hori duen pertsona edo espazioa ikusten duenean (pegatina edo posterraren bitartez) eskolaren webgunean sartzean, zeri buruz dijoan jakingo du.



³ Hemendik aurrera ZAB

⁴ Atxikia aurkitu dezakezu ZAB dokumentua zirutagiri bezala.

2. **ESKOLATIK ANTZOKIRA. Lan eszeniko bat ikustearen esperientzia.**

Momenturarte bizitako esperientzien bitartez, zure ikasleak eta zu “GIZON ZORIONTSUAREN ALKANDORA” arte-sorkuntzaz goatzeko prest dauden ikusleetan bilakatu zarete. Alkandoraren poltsikoan piezaren sinopsia aurkituko duzue, berriz ere irakur dezakezuen, antzokiaren ateak irekiko dizkizuen sarrerekin batera.



GIZON ZORIONTSUAREN ALKANDORA

Egilea: León Tolstoi

Dramaturgia: Ramon Molins

Antzezleak: Ainara Unanue eta Aitor de Kintana

Bazen behin oso gaixo jarri zen Zar bat, diagnostikoa: “ Gizon hau ez da zoriontsua”, sendagaia: “Gizon zoriontsu bat aurkitu behar duzue, eta bere alkandora jantzi”. [ZUM-ZUM TEATROak](#) gizateriaren abenturarik handienetako batean parte hartzera gonbidatzen du, “zoriontasunaren bilatzea”. Eta hori egiteko, teknologia berriak antzerki-izaera hutsenarekin uztartu nahi dugu, irudi animatu, objektu, musika eta egoera desberdinen unibertso bat sortuz galdera garrantzitsu bati erantzun ahal izateko: nor da munduko gizon edo emakumerik zoriontsuena?

3. PUNTU ETA JARRAI. Antzokira bisitaren ondorengo jarduerak.

Berriz eskolara bueltatzean, antzokira bisita eta “Gizon zoriontsuaren alkandora” antzezlanaren komentatuko dugu. Antzokira egindako bisita aurreko lanarekin erlazionatuko dugu eta horretarako, denen artean elkarrikeria bat izango dugu, antzezlanean islatuak ikusi ditugun alderdiak konparatuz, guk kontuan hartu izan ez genituenak, edota egon daitezkeen desberdintasunak.

Jarraian 2 dinamika gauzatuko ditugu:

3.1 Dinamika Antzokia Zoriontasunerako Agente Berezi gisa (15 min. inguru)

Antzokia leku zoriontsua dela uste al dugu? Konpainia osatzen duten pertsonen zoriontasunari laguntzen diotela pentsatzen al dugu? ZAB kategoria eman nahi diegu?

Horrela bada, Zum-Zum Teatro konpainiari pegatinak eta poster bat bidaliko dizkiegu postaz, pegatinak heuren soinean jartzeko edo kartela antzokian ipintzeko (behin hori eginda argazki bat eska geniezaieke). Gainera, eskolak ZAB pertsona eta espazioekin bezala, kategoria horren baitan daudela zergatik uste dugun azaltzen duen agiria igoko dugu webgunera. Titulua postaz bidali ere egin diezaiokegu konpainiari.



3.2 Dinamika ZAB izateko jarraibideak. (10-15 min. inguru.)

Gutako norbaitek ZAB izan nahi al du? Zer proposatu dezakegu lortu ahal izateko? Nola lagundu diezkiegu besteei momentu zoriontsuak bizitzen?

Ikasle bakoitzak ZAB titulua eskuratzen lagunduko dion ekintza bat egingo du. Eta unitate didaktiko honek irauten duen astean aurrera eraman beharko du.

Behin hau eginda, ikasle guztien artean partekatu egingo dugu eta ZAB tituluak banatuko ditugu.

3.3 Jarraituko du...

Alkandora gelan geratuko da eta zoriontasuna lantzeko tresna batean bilakatuko da ikasturtean zehar. Gelako ordezkaria existitzen den moduan, gelako ZAB pertsona ere izendatu dezakegu.

Pertsona honek jendea ondo egotearen ardura izango du (zoriontsu izatea). Gelakideak zaintzeko arduraduna izango da, norbait triste badago lagunduz, borrokaren bat badago esku hartuz, urtebetetze bat dagoenean zerbait antolatuz, taldearentzako hobekuntzak proposatuz... Aste bakoitzean funtzio hori pertsonaz aldatuko da. Pertsona horrek zoriontasunaren alkandora jantzita edukitzearen berezitasuna izango du.

Ekintza honen helburua eskolan elkarbizitza eta zaintzaren gaiak barneratzea da, modu egonkor eta iraunkor batean.

Jarraian zerrenda gauzatzen hasteko materia-sorta bat iradokitzen dizuegu, zeuek pixkanaka handituz joango zaretena. Zoriontasunari buruz beste modu batzuetan hitz egiteko aukera ematen duten materialak dira, baita proposamen artistikoen bitartez ere.

- [“don't worry be happy”](#) abestia
- [“del revés/inside out”](#) pelikula
- [“un gran dia de nada”](#) liburua

Azken proposamen honekin unitate didaktiko honi amaiera emango diogu. Zuk eta zure tadeak jarduerarekin disfrutatu izana espero dugu, eta zoriontasunari buruz beste modu batean lan egiteko aukera ahalbidetzea espero dugu, era dibertigarri, interesgarri eta erraz batean.

Beharrezko materialak:

Alkandora + etiketak

Pegatina orriak (koloretakoak)

A4/ A3 orriak, koloretakoak

Libretak (ikasle bakoitzarentzat, txikiak)

Tituluak kartulinetan eta formatu digitalean inprimatuak (osatzeko)

